

ESTADISTIKA 1 (froga fitxa)

Datu hauek enpresa bateko langileen altuerari dagozkie, metrotan neurtuta.

• Zenbat neurtzen du txikienak? (0, 5 p.)

• Zenbat neurtzen du handienak? (0, 5 p.)

• Bete ezazu maiztasun-taula hau: (2 p.)

1,60	1,62	1,72	1,56	1,69	1,67	1,62	1,81
1,85	1,75	1,88	1,81	1,67	1,53	1,74	1,57

Altuera (m) x_i	M. absolutua f_i
1,50 - 1,60	
1,61 - 1,70	
1,71 - 1,80	
1,81 - 190	
N =	

• Kalkulatu langileen "batez besteko altuera". (2 p.)

$$\bar{X} = \frac{\quad}{\quad} = \quad$$

$$\bar{X} = \quad \text{metro}$$



2. Irakurri eta interpretatu Euskal Herriari buruzko taula hau.

AMA IZATEKO ADINA
• EMAKUME BATEK LEHENENGO HAURRA DUEN ADINA.

Urtea	1990	1992	1994	1996	1998	2000	2002	2004	2006	2008	2010
Ama izateko batez besteko adina	29,7	30,3	30,9	31,4	31,8	32	32,3	32,4	32,3	32,2	32,4

• Interpretatu taula honetako datuak. (2, 5 p.)

Idatzi E (egia) ala G (gezurra).

– 2000. urtean 32 neska-mutiko jaio ziren.

– 2000. urtean haurra izan zuten emakume guztiek 32 urte zituzten.

– Emakumeek geroz eta zaharrago direla izaten dute lehenengo haurra.

– 2000. urtean haurra izan zuten emakumeen "batez besteko adina" 32 urtekoa izan zen.

– 2000. urtean lehenengo haurra izan zuten emakumeen "batez besteko adina" 32 urtekoa izan zen.

